

UDALAK EGITEN DITUEN DATU TRATAMENDUEN GAINKO ARGIBIDE ZABALAGOA. ERREGELAMENDUA (EB) 2016/679 (DBEO)

Odietako Udalak agiri hau prestatu du, interesa duen jende orori ahalik eta argibiderik zabalena emateko, Udalak berak datu pertsonalizatuez egiten dituen tratamenduen gainean.

Argibide hau eskuratzen duen edonork ez badu informazioa ulertzen, aukeran du datuak babesteko entitateko ordezkariarengana jotzea, dpd@odieta.es bere datu pertsonalen tratamenduari dagozkion kontuak oro argitu diezazkion.

Nor da Tratamenduaren Arduraduna?

Tratamenduaren arduraduna Odietako Udala da. Helbidea: San Sebastian Kalea 107 p.k.31799 Erripa, Odieta (NAFARROA)

Zer xederekin tratatzen dira zure datuak?

Udalak hainbat xedetarako tratatzen ditu datu pertsonalak, Udalak berak egiten duen tratamendu-jarduera bakoitzarekin bat; tratamenduak [tratamendu-jardueren erregistroan](#) daude eskuragai. Jarduera bakoitzean, tratamenduaren xedea adierazia dago.

Zer oinarrik legitimatzen du datuen tratamendua?

Datuak tratatzen dira, Udalak bere lege-betebeharrak bete ditzan, interes publikoaren alde egindako eginkizunak betetze aldera edo botere publikoak gauzatzeko aldera, kontratu bat gauzatzeko aldera edota baimenean oinarriturik; baimena, betiere, baiezko ekintza argi baten bidez eman beharko da.

Eskura duzu Udalak egiten duen tratamendu-jarduera bakoitzari dagokion lege-oinarria: [jardueren erregistroa](#).

Zenbat denboraz gordetzen ditu Udalak datuak?

Oro har, emandako datu pertsonalak gordeko dira datu horiek eskatzeko helburua betetzeko behar den denborarako; hala ere, Udala artxiboei eta dokumentazioari buruzko foru araudiari dago lotuta, eta bereziki, ekainaren 14ko 51/2016 Foru Aginduari, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emandakoari, Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak onesten dituenari, hain zuzen.

Nori jakinarazten zaizkio datu pertsonalak?

Oro har, datuak soilik jakinarazten dira lege-betebeharrak badago, baina beste datu jakinarazpen batzuk izan daitezke, tratamendu legitimoko beste kasu batzuetan oinarrituta. Kontsultagai dituzu Udalak egiten duen tratamendu-jarduera bakoitzari dagozkion hartzaileak: [jardueren erregistroa](#).

Zein da datuen jatorria?

Oro har, Udalak tratatzen dituen datuak interesdunak berak emandakoak dira; hala ere, interesdunarengandik ez datozen beste datu tratamendu batzuk [jardueren erregistroan](#) zehazturik daude.

Odietako Udala

Zer eskubide dituzte interesdunek?

Interesdunek Udaletik baieztapen bat jasotzeko eskubidea dute, beraiei dagozkien datu pertsonalak Udala tratatzen ari den edo ez jakiteko.

Horrez gain, eskubide hauek erabil ditzake:

- **Sarbidea:** zer datu pertsonal tratatzen diren jakiteko, barne dagoela honakoari buruzko informazioa: xedeak, datuen kategoria, datuak gordetzeko epeak, hartzaileak, jatorria (interesdunak berak emandakoak ez bada), eta beste eskubide batzuen erabilerari buruzko informazioa.
- **Zuzenketa:** datu okerrak zuzendu daitezten, edota datu osagabeak adierazpen gehigarri baten bidez osa daitezten.
- **Ezabaketa:** Datuak ezabatzea eskatzeko, hori zilegitzen duen inguruabarrik gertatzen bada, DBEOn adierazitakoen artean.
- **Mugaketa:** Udalak denboraldi batez datuak tratatu ez ditzan, DBDOn adierazitako baldintzetako bat betetzen bada.
- **Eramangarritasuna:** interesdunak Udalari eman dizkion datuak eskuratzeko (interesdunari dagokionak), betiere formatu egituratuan, irakurketa mekaniko eta erabilera arruntekoan. Dena den, eskubide hori soilik bete daiteke, baldin eta interesdunak tratamendua egiteko baimena ematen badu, edota kontratu bat gauzatzeko bada, betiere tratamendua automatizatua bada.
- **Aurka egitea:** Udalak interesdunaren datuak tratatzeari utz diezaion, interesdunaren egoera partikularrari lotutako arrazoiak kontuan hartuta, eta tratamendua interes publikoan edo botere publikoen erabileran oinarritua dagoenean.
- **Baimena kentzeko eskubidea.** Udalak egiten duen tratamenduren bat interesdunaren baimenean oinarritua badago, interesdunak edozein unetan du baimena kentzeko eskubidea, baina horrek ez dio eraginen aurretik egindako tratamenduaren zilegitasunari.

Interesdunek hainbat bide dituzte aurreko eskubideak erabiltzeko:

- Udal bulegoetan, bertara joanda edo posta arruntez: San Sebastian Kalea 107 p.k.31799 Erripa, Odieta (NAFARROA) Bietan nortasun agiri bat eskatuko zaie.
- Egoitza elektronikoaren bidez: datuak babesteko tramiteak [Sede Electrónica - ODIETA](#)
- Datuak babesteko ordezkariarengana joz dpd@odieta.es

Interesdunek, halaber, erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.aepd.es), beren iritziz tratamenduak ez badatoz bat indarrean dagoen araudiarekin.